

Aurkezpena. Erretratuak. Tolosa I


Erretratuak izeneko liburu honen aurkezpena idaztea lan benetan atsegina zait, Joseba Urretabizkaiaren oraingo argazki-bilduma ordainik gabeko lana bait da, atsedetik gabeko grinaren fruitua, hainbestetan frogatutako ofizio eta Tolosarenganako maitasunean oinarritutako ahalegina.

Liburua kalitate handiko berrogeita hemezortzi argazkik osatzen dute, kirola, artea eta zientifikotasuna bilduz eta gure herriko jendearen ikuspegi garrantzitsu bat eskainiz, gertueneko iraganarekin hasi eta gaur egungo munduan, bizi dugun munduan, muga hartuta.

Horrelakoetan gertatzen denez, liburuaren egileak badaki *dauden guztiak egon badaudela, baina diren guztiak ezetz*; baina adinaren erizpidea kontutan hartu izanak eta lan hau segida baten hastapena baizik ez izateko gogoak, ezarritako mugetara bultzatzen dute Joseba Urretabizkaia.

Argazki bakoitzarekin erretratatuaren kurrikulum modukoa datorrela ikusten da, liburuan *azaltzeko* arrazoiak emanez. Horrelako lanetan gertatzen den moduan, kurrikuloak era askotakoak dira eta esperientziak erakutsita daki nolako zailtasunak sortzen diren batzuren laburpenak egoki egitean; Joseba Salbadorrek meritu haundiko ofizioa erabiliz gairitu ditu zailtasun hauek.

Dudarik gabe, *Erretratuak* interes haundiko lorpena da, tolosarren eta, tolosar izan gabe, gure herriarekin identifikazioa dutenen argazkietako giza-berotasuna nagusi duen lan aparta.



Aurkezpena = Presentación / Juan Garmendia Larrañaga. - En: *Erretratuak*. Tolosa I. / Joseba Urretabizkaia, argazkiak; Joseba Salvador, textuak. - [Tolosa : Joseba Urretabizkaia, 1993]. - 129 p. : il. ; 24 cm. - P. 8-9. - ISBN: 84-604-8478-5